



Arartekoaren 2023R-1753-23 ebazpena, 2023ko azaroaren 23koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jartzen duenean beti abisu bat bidaltzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzerako onetsi zuen herritar batek egindako kexa, ez zegoelako ados etxebizitza birgaitzeko laguntzak emateko administrazio-izapideetan jakinarazpen elektronikoan egiteko erabiltzen den prozedurarekin.

Kexagileak kexan azaldu zuenaren arabera, jabeen erkidego bateko kide da, eta eraikinaren ingurutzalea zaharberritzeko obra batzuk egitea adostu zuten efizientzia energetikoa hobetzeko helburuarekin. Halaber, jabeen erkidegoak erabaki zuen laguntza bat eskatzea Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, administrazio horrek erkidegoetako obretan efizientzia energetikoaren, irisgarritasunaren eta etxebizitzak zein eraikinak birgaitzearen esparruetan babestutako jarduketak finantzatzeko eskaintzen duen neurrien programaz baliatu ahal izateko.

Hori horrela, erkidegoko obretan birgaitzea egiteko laguntzaren eskaerarako administrazio-izapidetzea hasi zuen jabeen erkidegoak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan.

Kexagileak Arartekoari azaldu zionez, jabeen erkidegoak, laguntzeko espedientearen izapidetzearen esparruan, administrazioaren jakinarazpenen berri emateko abisuak jaso zituen eta egoitza elektronikoan agertzea ahalbidetu dute Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako egintzak ezagutze aldera.

Aipatutako abisu informatiboak laguntzen espedientearen izapidetze-egoeraren berri emateko bitarteko gisa administrazioari emandako posta elektronikoko helbidean jaso ziren hasieran.

Alabaina, kexagileak zehaztu du erkidegoak ez zuela abisu informatiborik jaso 2022ko abenduaren 21eko gora jotzeko errekurtsio baten ebazpenaz jakinarazteko. Ebazpen hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak eman zuen. Hori dela eta, iraungi egin zen ebazpenaren edukia eskuratzeko epea, eta, beraz, hamar egun natural igaro ondoren, ez onartutzat eman zen eta, ondorioz, espedientearen ixtea erabaki zen.





2. Kexan azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak laguntzeko eskaera bat bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailera. Horren bidez, eskatu zuen interesdunaren posta elektronikoko helbidera abisu informatiboa bidali izanaren dokumentazioa edota egiaztapena bidaltzeko; egoitza elektronikoa aurrez aipatutako errekursoaren ebazpenaren jakinarazpena eskuragarri jartzeari buruzko abisua, hain zuzen.

Administrazioak aurrez aipatutako abisua bidali ez bazuen, Arartekoak jakin nahi izan zuen zer arrazoi teknikorengatik eta juridikorengatik administrazioak ez zuen bidali egoitza elektronikoa jakinarazpena eskuragarri jarri izanari buruzko abisu informatiboa.

3. Geroago, erakunde honen erregistroan jaso zen administrazio horren erantzuteko txostena. Horren bidez, adierazi zuen ez zela egin hizpide den kexan aipatutako abisu informatiboa; jakinarazpena eskuragarri jarri izanarena, alegia.

Zehazki, administrazioak adierazi zuenaren arabera, abisu informatiboa ez zen egin administrazioaren akats mekanografiko batengatik, errekursoaren ebazpenaren jakinarazpena gainerako jakinarazpenetarako plataforma ez den beste batetik egiten delako, eta, hain zuzen, aplikazio horretan ez ziren jaso jabeen erkidegoaren ordezkariaren harremanetarako datuak. Hau da, erkidegoak birgaitzeko laguntzen eskaera aurkeztu zuenean, erkidegoaren ordezkariaren harremanetarako datuak adierazi zituen (posta elektronikoko helbidea, besteak beste). Sailak behar bezala sartu zituen izapideetarako aplikazio informatikoan pertsona horren harremanetarako datuak, baina akatsez ez zuen gauza bera egin errekursoetarako aplikazioan. Hori dela eta, kexagileak ez zuen jaso errekursoaren ebazpenari buruzko jakinarazpenaren abisua.

Bestalde, administrazioak zera argudiatu zuen erantzuteko txostenean:

"39/15 Legearen 41.6 in fine artikulua arabera, "Abisu hori ez egiteak ez du eragotzikojakinazpena guztiz baliozkotzat jotzea". Hori dela eta, Sail honen jarduna guztiz bat etorri da zuzenbidearekin, jakinarazpena egin baitzen, eta hark errespetatu egin baitzuen gure ohiko legearen 40. artikulua eta hurrengoaren edukia, 43.2 in fine artikulua xedatu duenaren ildotik: "Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena nahitaezkoa denean, edo interesdunak berriaz aukeratu duenean, jakinarazpena ukatu egin dela ulertuko da jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igaro badira eta ez 'bada haren edukira sartu".

Aipatutako interpretazioa funtsatzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egoitza elektronikoko pantaila-argazkiak bidali zituen,





jabeen erkidegoarekin izapidetutako laguntzen espedientearen datuak erakusten dituztenak. Horietan ikus daiteke 2022ko abenduaren 21ean sortutako errekurtsoren ebazpenaren jakinarazpena, 2023ko urtarrilaren 1ean irauungi zena (hamar egun naturaleko epean), eta, hortaz, 2023ko urtarrilaren 3an espedientea itxi zela.

Azkenik, administrazioak Arartekoari adierazi dio zera hartu behar dela kontuan:

“Erreferentziazko espedientearen jakinarazpenaren edukiak gaur egun ere eskuragarri jarraitzen duela, espedientea itxita egon arren, eta, beraz, ez zela eragotzi bide judiziala erabiltzea. Espedientea ixteak administrazio-bidean dokumentazio berrin aurkeztea baino ez du eragozten.

Kontuan izan, halaber, pantaila-argazkian "errekurtsoren ebazpenari buruzko jakinarazpenari buruzko oharra" aipatzen bada ere, kasu honetan ez zela egin, daturik ez zegoelako¹. Hala ere, aplikazio informatikoak errekurtsoren ebazpenaren jakinarazpenaren abisu automatikoa aurreikusten du”.

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Azaldutako aurrekariak ikusita, Arartekoak gogoeta batzuk egin nahi ditu administrazioak jarduketan lehenetsi behar duen **legezkotasun-printzipioari** lotuta, bai eta **eraginkortasun-printzipioari** lotuta ere, erabakitzeke ea jakinarazpenak eskuragarri egotearen berri emateko abisurik ez ematea administrazioaren behar bezalako jarduketa izan daitekeen.

Espainiako Konstituzioaren [103. artikulua](#) dio administrazioaren jarduera Legearen eta Zuzenbidearen menpe dagoela osorik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen [hitzaurreak](#) zera xedatzen du: *“Printzipio horiek prozeduran gauzatzen dira. Prozedura, berriz, bide formal batzuk dira, zeinek bermatu behar baitute oreka egoki bat gorde dadila administrazio-jarduketaren efikaziaren eta herritarren eta enpresen eskubideen babes ezinbestekoaren artean, eskubideok oinarrizko berdintasun-kondizioetan baliatu behar baitira lurraldeko edozein lekutan, edozein administrazioarekin daudela ere harremanetan haien titularrak”.*

2. **Legezkotasun-printzipioa** Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen [5. artikuluan](#) dago araututa, honela:

¹ Arartekoak azpimarratu du

“5. artikulua.– Jarduteko printzipioak.

1.– Eremu instituzional bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendua zuzentzen duten printzipioez gainera, euskal sektore publikoko subjektu guztiek jardun behar dute printzipio orokor hauen arabera ere:

(...)

b) Legezketasun-printzipioa. Printzipio horrek agintzen du nola jardun behar duten sektore publikoko administrazio publiko eta entitateek eta, bereziki, nola bete behar dituzten ordenamendu juridikoak ezartzen duen eskumen-banaketaren arabera gomendatzen zaizkien funtzioak”.

Hizpide dugun kasuan, arazoa sortu da interesdunarekin izan den harreman elektronikoaren markoan; beraz, komeni da gogoraraztea aipatutako legearen [68. artikulua](#)ren lehenengo paragrafoan xedatutakoa, hau da, *“Administrazio elektronikoa, oro har, hurbiltasuna, gardentasuna, bizkortasuna eta efizientzia lortzeko tresna eta bidea da. Administrazio elektronikoak ez du baztertuko ohiko administrazioaren egitura- eta zerbitzu-moldea. Administrazio elektronikoaren oinarria izango da herritarren eskakizunei erantzutea eta funtzionamendu egokia bermatzea”.* (Arartekoak azpimarratu du).

68. artikulua aurrerago zehazten du euskal sektore publikoak herritarrekin dituen harremanetan egiten duen jarduketan bitarteko elektronikoak erabiltzea zer printzipiora egokitu behar den, besteak beste:

“(...)

a) Berdintasun-printzipioa, bitarteko elektronikoak erabiltzeak ez diezaien inolako murrizketarik edo diskriminaziorik eragin Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin harremana izateko bitarteko ez-elektronikoak hautatzen dituzten herritarrei, ezertan galarazi gabe bitarteko elektronikoen erabilera sustatzeko neurriak.

(...)

c) Legezketasun-printzipioa, herritarrek berme juridiko guztiak izan ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin dauzkaten harreman elektronikoetan.

(...)”.

Arartekoaren iritziz, legezketasun- eta berdintasun-printzipio horiek gogorarazi behar dira; izan ere, lehenik eta behin, herritarrei benetako tratu-berdintasuna emateak berekin dakar administrazioarekin harremanetan jartzeko bitarteko bat edo beste bat aukeratzeak ez duela eragozpenik eta diskriminaziorik eragin behar.

Horrez gain, legezketasun-printzipioak exijitzen du *“herritarrek berme juridiko guztiak izan ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin dauzkaten*



harreman elektronikoetan integritatea mantendu behar dela, eta, beraz, administrazioaren jarduketak bitarteko elektroniko bidezko prozeduraren betekizunak ere errespetatu behar ditu.

Kasu honetan, kexagileak Arartekoari azaldu zion ezen, administrazio-prozedura batean zehar, jakinarazpen elektronikoak eskuragarri zeudelako abisuak jaso zituela izapidetzearen fase batzuetan, eta beste batzuetan, ordea, ez. Hori dela eta, abisuen zain egon zen, eta, errekurtsuari zegokion ebazpenarena jaso ez zuenez, ez zuen jakin egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri egon zenik.

Erantzuteko txostenean administrazioak berak argitu zuen akats informatiko bat egon zela, eta horrek eragin zuela jakinarazpena egoitza elektronikoan zegoelako abisurik ez ematea.

Horrenbestez, Arartekoak egokitzat jotzen du jarraian aztertzea ea administrazioak legezkotasuna errespetatu zuen bitarteko elektronikoen bidez sustatutako administrazio-prozedura baten markoan, eta ea abisu informatiboak bidaltzea nahitaezko betekizuna den administrazioak emandako egintzak ezagutzeko.

3. Jakinarazpenak egiteko baldintza orokorren harira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen [41. artikulua](#) zera ezartzen du: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

“6. Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoan edo eman duen helbide elektroniko bakarrean. Abisu hori ez emanatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da”. (Arartekoak azpimarratu du).

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, RAFME gaztelaniazko siglak) [43,1 artikulua](#) zera ezartzen du jakinarazpenen berri emateko abisuei buruz:

“Artículo 43. Aviso de puesta a disposición de la notificación.

1. De acuerdo con lo previsto en el artículo 41.6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, con independencia de que la notificación se realice en papel o por medios electrónicos, las Administraciones Públicas, organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes enviarán al interesado o, en su caso, a su representante, aviso informándole de la puesta a disposición de la notificación bien en la Dirección Electrónica Habilitada única,





bien en la sede electrónica o sede electrónica asociada de la Administración, u Organismo o Entidad o, en su caso, en ambas.

La falta de práctica de este aviso, de carácter meramente informativo, no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida.

El aviso se remitirá al dispositivo electrónico o la dirección de correo electrónico que el interesado haya comunicado voluntariamente al efecto, o a ambos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

El interesado se hace responsable, por la comunicación a la Administración, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, de que dispone de acceso al dispositivo o dirección de correo electrónico designados. En caso de que dejen de estar operativos o pierda la posibilidad de acceso, el interesado está obligado a comunicar a la Administración que no se realice el aviso en tales medios. El incumplimiento de esta obligación por parte del interesado no conllevará responsabilidad alguna para la Administración por los avisos efectuados a dichos medios no operativos.

El aviso regulado en este apartado sólo se practicará en caso de que el interesado o su representante hayan comunicado a la Administración un dispositivo electrónico o dirección de correo electrónico al efecto". (Arartekoak azpimarratu du).

Herritarrei kanal anitzeko arreta integrala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren [89. artikulua](#) (aurrerantzean, Euskadiko administrazio-elektronikoaren dekretua) 1etik 4ra bitarteko apartatuetan zera ezartzen da jakinarazpena eskuragarri jarri delako abisuari buruz:

"1.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazpena paperean edo bitarteko elektronikoen bidez egin den alde batera utzita, Administrazioak abisu bat bidaliko dio interesdunari edo, hala badagokio, haren ordezkariari, eta adieraziko dio jakinarazpen bat eskura jarri diola egoitza elektronikoa.

2.- Abisua bidaltzen ez bada ere –informatiboa izango baita soil-soilik–, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

3.- Interesdunak edo haren ordezkariak borondatez horretarako adierazi duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, edo bietara, bidaliko da abisua.

4.- Administrazioari egindako komunikazioarekin, interesdunak onartzen du gailu horretara edo helbide elektronikoa horretara irispidea duela. Bitarteko elektronikoa horiek operatibo edo irispidean egoteari utziz gero, interesdunak nahitaez eman behar dio horren berri Administrazioari, abisuak bitarteko horietara igor ez ditzan. Betebehar hori ez betetzeak ez dio Administrazioari inolako erantzukizunik ekarriko operatibo ez dauden bitarteko horietara igorritako abisuengatik". (Arartekoak azpimarratu du).





Euskadiko administrazio-elektronikoaren dekretu hori indarrean sartu zen kexan azaldu diren egitateak gertatu ondoren, baina, hala eta guztiz ere, aipatu egin behar da oinarrizko legeria erreproduzitzen duelako eta gaur egun Euskadiko administrazio orokorrari aplika dakioken arau-erreferentzia delako.

Aipatutako manuek zera diote espresuki administrazioei buruz: *“administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora”*; *“Administrazioak abisu bat bidaliko dio interesdunari edo, hala badagokio, haren ordezkariari, eta adieraziko dio jakinarazpen bat eskura jarri diola egoitza elektronikoa”* eta, Arartekoaren iritziz, administrazioari derrigorrez inposatutako berme bat ezartzen dute. (Arartekoak azpimarratu du).

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak erantzunean argudiatu du ezen, nahiz eta akatsa eta abisurik egin ez izana onartu, jarduketa zuzenbidearen arabera dela, araudiak zera dakarrelako: *“abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da”*. Alabaina, Arartekoak ez du uste interpretazio hori zuzena denik, uste baitu RAFMEren [43. artikuluan](#) (eta Euskadiko administrazio-elektronikoaren dekretuaren 89.4 artikuluan) xedatutakoarekin lotu behar dela, hau da,

“(…) El interesado se hace responsable, por la comunicación a la Administración, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, de que dispone de acceso al dispositivo o dirección de correo electrónico designados. En caso de que dejen de estar operativos o pierda la posibilidad de acceso, el interesado está obligado a comunicar a la Administración que no se realice el aviso en tales medios. El incumplimiento de esta obligación por parte del interesado no conllevará responsabilidad alguna para la Administración por los avisos efectuados a dichos medios no operativos. (...)”.

Hori horrela, legegileak argitu du zer egoeratan jo behar den erabat baliozkotzat jakinarazpena administrazioak **bidalitako** abisua gauzatzen ez denean.

Testuinguru horretan, interesdunak ez ditu behar bezala ematen harremanetarako datuak, hala nola posta elektronikoa eta telefono mugikorraren zenbakia, ez ditu eguneratzen edo ez ditu berrikusten; kasu horretan, abisua ez jasotzearen ondorio juridikoa interesdunari bakarrik egotziko zaio, eta ez du erantzukizunik ekarriko administrazioarentzat.

Horrela, jakinarazpen bat eskura jarri izanaren abisua bidaltzea berme bat da, eta, Arartekoaren iritziz, kasu guztietan eta baldintzarik gabe egin behar da.





Administrazioaren aukera bat dela argudiatuz gero, logikoa da pentsatzea posizio juridiko hobean jartzen duela paperean jakinarazia izatea aukeratzen duena, administrazioak emandako ebazpenaren edo egintzaren edukia bere helbidean jasoko duelako, bestelako ahaleginik egin beharrik gabe.

Alabaina, administrazioarekin harremanetan jartzeko bitarteko elektronikoa aukeratzen duena, abisu informatiborik jasotzen ez badu, egoera okerragoan egongo da; izan ere, **harremana duen administrazio guztien egoitza elektronikoko guztiak kontsultatu beharko ditu egunero, jakinarazpenik eskuragarri duen jakiteko.**

Arartekoak uste du aukera hori ontzat emateak administrazioaren alde eta ez alderantziz eraikitako administrazio-eredu anakroniko bat deskribatzen duela, eta, beraz, ez dirudi administrazio elektronikoen garapenak izan behar duen sinpletasun-printzipiora egokitzen denik (Euskadiko Sektore Publikoaren Legearen [68. artikulua](#)). Halaber, badirudi ez datorrela bat Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 41.1 artikuluan jasotakoarekin. Zera xedatzen du artikulua horrek: *“Jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egingo dira, ahal dela; interesduna behartua baldin badago bide horretatik jasotzera, beti”*. (Arartekoak azpimarratu du).

Laburbilduz, abisuak egitea jakinarazpenaren berri izateko bermea da, eta, aztertu den keaxaren egoeran, interesdunak baimendutako, emandako eta aukeratutako bidea izan zen, posta elektronikoen harremanetarako datuak eman baitzituen abisuak jasotzeko, eta konfiantza izan zuen jasoko zituela.

Are gehiago, kexagileak administrazioaren egoitza elektronikoa dauden datuen kopia bat eman zion Arartekoari, eta bertan berariaz jasota dago bide elektronikoa aukeratu zuela administrazioarekin harremanetan jartzeko.

Abisuak jasotzeko bere posta elektronikoko helbidea agertzen da, eta, jarraian, administrazioaren testu bat. Zera dio, hitzez hitz: *“Ha dado su consentimiento para que estos datos de comunicación y aviso se utilicen de forma predeterminada en sus relaciones con los departamentos y organismos del Gobierno Vasco”*.

Aipatutako paragrafoak interesdunari konfiantza ematen dio administrazioak egoitza elektronikoa adierazi duena egingo duela.

Kexagileak espediente beraren izapidearen markoan aurrez abisuak jaso izanak konfiantza hori indartzen du, baina planteatutako errekursoaren ebazpenaren harira abisurik ez jasotzeak, berriz, konfiantza hori zapuzten du.

Jakinarazpenak eskura jartzearen abisua emateari lotutako legezko bermeak interesdunari konfiantza legitimoa sortzen die administrazio publikoak duen betebeharra beteko duela. Administrazioak bere jarduketetan konfiantza legitimo



hori errespetatu behar du, aplika daitekeen printzipio orokorra den aldetik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen [3.1.e\) artikuluan](#) jasotakoarekin bat.

4. Eraginkortasun-printzipioa funtsezkoa da erakunde guztietan, eta Konstituzioak aldarrikatzen duen Zuzenbideko Estatu sozialaren agindu bat da. Horren arabera, administrazioak, komunitatearen zerbitzura dagoen erakunde kudeatzailea den aldetik, beharrian kolektiboak asetzeaz gain, eraginkortasunez ase behar ditu.

Interesdunak jakinarazpenak jasotzeko eskaera egin duenean, jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisurik ez emateak eta itxaronaldiak eragina izan dezake legitimoki administrazioaren jardunaren eraginkortasunean eta, ondorioz, bere eskubide eta interes legitimoen defentsan.

Gainera, badirudi administrazioaren behar ez bezalako jarduketa dela, administrazio onaren printzipioaren aurkakoa, azkenaldiko ebazpen judizialetan islatzen den bezala.

Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2023ko urtarrilaren 31ko 95/2023² Epaiaren bidez, honako hau adierazi du bigarren oinarri juridikoan abisu informatiborik ezari eta haren eraginkortasunari buruz:

“(...). Pues bien, la intrascendencia que la Administración de la Comunidad Autónoma da en el presente juicio a la irregularidad en la práctica del aviso de la notificación, ante todo, es una posición contraria al principio de buena administración e incluso a sus propias disposiciones normativas entonces vigentes.

(...)

La validez atañe a los elementos intrínsecos del acto, en tanto que la eficacia concierne a los requisitos extrínsecos o aplicabilidad, es decir, al momento en que el acto apto es susceptible de aplicación.

Como es sabido, la vocación de eficacia inmediata con la que nacen todos los actos administrativos puede aplazarse cuando el acto debe ser notificado.

La plena producción de efectos de los actos administrativos requiere por tanto el cumplimiento del presupuesto de su eficacia, es decir, requiere de la notificación regular del acto administrativo.

La notificación tiene por objeto dar a conocer a los interesados las resoluciones o acuerdos que afecten a sus derechos o intereses.

La notificación es, pues, un instrumento para que el interesado conozca el acto de la Administración, siendo deber de sus órganos la correcta realización de la misma, con lo que es obligado tenerla por inexistente ante cualquier

² [ECLI:ES:TSJBAL:2023:95](#)

insuficiencia, confusión o duda sobre su realización, sobre las personas a las que se practicó o sobre la fecha en la que se produjo.

Como es natural, la importancia de la notificación y la necesidad de practicarla regularmente radica en hacer posible que los interesados puedan defender sus derechos e intereses legítimos

Las garantías de la notificación están vinculadas con el principio de buena fe y con el derecho fundamental de tutela judicial efectiva.

En efecto, la notificación se configura como una garantía sometida a requisitos formales con el fin, en primer lugar, de evitar la indefensión material de los administrados.

Por consiguiente, siempre es crucial la estricta observancia de los requisitos de la notificación (i) para que la notificación surta plenos efectos, y (ii) para que, a partir de la notificación, el acto sea plenamente eficaz.

(...)

A la vista de lo dispuesto en el artículo 43 de la LPAC, es imprescindible que el interesado cuente con la posibilidad real de acceder a la notificación en ese plazo de diez días. Para ello es igualmente imprescindible que el interesado tenga conocimiento de la existencia de la notificación. Y para asegurar esa posibilidad el artículo 41.6 de la LPAC ha incorporado como una más de las condiciones generales para la práctica de las notificaciones electrónicas el envío de un aviso a la dirección de correo electrónico.

A partir de ahí, y garantizada también -artículos 9.3 y 24.1 de la Constitución- la seguridad jurídica y el derecho fundamental a la no indefensión, en definitiva, la previsión de que la falta de aviso no impide que la notificación electrónica sea considerada plenamente válida ha de entenderse que comprende -únicamente- todos los casos en que la Administración actuante pueda justificar que la falta de aviso no ha ocasionado una experiencia de indefensión al interesado.

Por lo tanto, la notificación electrónica depositada, si no se prueba por la Administración la falta de experiencia de indefensión, no produce el efecto del rechazo tácito, con lo que su eficacia depende del envío del aviso y, lógicamente, del posterior transcurso del plazo de los diez días". (Arartekoak azpimarratu du).

Organo judicialak aipatutako ebazpenean interpretatzen duenez, jakinarazpen elektronikoak egiteko baldintza orokorretako beste bat da jakinarazpena eskura jarri izanaren abisu informatibo bat bidaltzea. Halaber, gaineratzen du ezen, jakinarazpena baliozkoa izateko, gai izan behar dela justifikatzeko abisurik ez emateak interesdunari ez diola eragin babesgabetasun-egoera bat.

Aurrekarietan jasota geratu den bezala, administrazioak berak onartu du egotz dakioken akats tekniko bat egon zela, abisu informatiboa interesdunak emandako helbidera bidaltzea eragotzi zuena. Beraz, ondorioztatu behar da, hain zuzen,

kexagileak ezin izan zuela administrazioak emandako egintzaren berri izan bere eskubideak eta interes legitimoak garaiz eta behar bezala defendatu ahal izateko.

Are gehiago, Kataluniako justizia Auzitegi Nagusiak, 2023ko ekainaren 13ko 5684/2023 Epai bidez³, interpretatu zuen administrazioak abisu informatiborik ez egiteak interesdunari benetako babesgabetasun-egoera eragin ziola, eta zera erabaki zuen: *“la retroacción del expediente a fin de que se tramite en legal forma a los efectos de resolver sobre la procedencia de la autorización”*. (Arartekoak azpimarratu du).

Zehazki, auzitegiak zera adierazi zuen bigarren oinarri juridikoan:

“(…) La Administración se limitó a poner a disposición la notificación en la sede electrónica, sin remitir el aviso a que se refiere el art. 41.6 de la LPAC. En estas condiciones, procede entender que la Administración no ha desplegado la conducta exigible, en términos del principio de buena administración, para que el solicitante pudiera tener conocimiento de la comunicación. Debe considerarse, en primer lugar, que no consta que la representante designada estuviera obligada a comunicarse electrónicamente con la administración, conforme al art. 14 de la LPAC, por lo que debería haberse remitido el aviso de notificación que contempla el art. 41.6 de la LPAC, mayormente cuando existían datos desde el inicio del expediente de que estaba representando a una persona vulnerable o dependiente. (...). Sin embargo, la propia doctrina constitucional expresada en la STC 84/2022, de 27 de junio de 2022, ha matizado que, en determinados supuestos, la falta de recepción del aviso de notificación adquiere particular relevancia, no porque ello determine per se la invalidez de las notificaciones efectuadas en la dirección electrónica habilitada, sino porque esa circunstancia impide al recurrente tener conocimiento de que se ha producido una notificación en la dirección electrónica habilitada. (...). En estas condiciones, el principio de buena administración exigiría la remisión de un aviso que permita a la representante del interesado tener conocimiento de la comunicación, lo cual en ningún momento hizo la Administración, de modo que el solicitante solo tuvo conocimiento de que se había archivado el expediente cuando la trabajadora designada como representante remitió sendos correos a la Oficina de Extranjería para ver el estado en que se encontraba el expediente (f. 42 EA), constando que se le facilitó la información en fecha 4 de febrero de 2021, cuando ya había transcurrido el plazo del recurso de reposición. En consecuencia, apreciando que la falta de remisión del aviso produjo una situación material de indefensión al demandante, procede estimar en parte el recurso de apelación, en tanto que el expediente debe tramitarse para resolver sobre si procede la concesión del permiso solicitado, acordando la retroacción

³ [ECLI:ES:TSJCAT:2023:5684](https://www.boe.es/boe-datos/boe/BOE-A-2023-5684.html)



del expediente a fin de que se tramite en legal forma a los efectos de resolver sobre la procedencia de la autorización". (Arartekoak azpimarratu du).

Aurrekoarekin bukatzeko, jakinarazpenei lotutako abisu informatiborik ez ematearen eraginei, eta, azken batean, jakinarazi nahi den administrazio-egintzaren eraginkortasunari buruz azaldutako gaia interpretatzeko aipatutako organo judizialek oinarri izan duten konstituzio-doktrina aipatu behar da.

Konstituzio Auzitegiaren 84/2022 Epaiak, ekainaren 27koak⁴, baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren arteko bereizketa aipatzen du, eta ezartzen du abisurik ez bidaltzeak eragina izan dezakeela babesa izateko eskubidean, eta, zehapen-prozedura baten kasuan, akusazioaren berri izateko eskubidean.

"Pese a lo expuesto, en el presente supuesto afirmamos que la falta de recepción de los avisos de notificación adquieren particular relevancia, no porque ello determine per se la invalidez de las notificaciones efectuadas en la dirección electrónica habilitada, sino porque esa circunstancia impidió al recurrente tener conocimiento de la asignación de oficio de una dirección electrónica habilitada; de que, a través de ese medio fue requerido para que aportara la información reflejada en los antecedentes de esta resolución; y finalmente, de que, ante la falta de respuesta por su parte, le fue incoado un procedimiento sancionador, respecto de cuya tramitación y resolución final fue desconocedor hasta la apertura de la vía de apremio".

Konstituzio Auzitegiaren 84/2022 Epaiak azken batean adierazten du administrazioak ez zuela behar bezala jardun, ez baitzituen egiaztatu interesdunak emandako posta elektronikoko helbidearen datuak, hau da, ez zuen jardun zehapen-prozedura bat izanda zegokion diligentziarekin.

"...consideramos que la actividad desplegada por la administración no ha sido respetuosa con el derecho a la defensa y el derecho a ser informado de la acusación que se reconocen en el art. 24.2 CE. Achacar al demandante la responsabilidad de que no llegara a ser conocedor de la dirección electrónica habilitada que le fue asignada, del contenido del requerimiento y de las demás comunicaciones practicadas por vía electrónica, con fundamento en la forma en que trazó la letra "v" al escribir su dirección de correo electrónico en la declaración formulada el 16 de diciembre de 2016, supone conferir a esta circunstancia unas consecuencias manifiestamente desproporcionadas, vistos los efectos adversos producidos en el procedimiento sancionador. (...). La concurrencia de los factores apuntados lleva a considerar que, ante lo infructuoso de las comunicaciones practicadas por vía electrónica, la

⁴ [ECLI:ES:TC:2022:84](https://www.boe.es/boe/2022/06/27/15111.htm)



administración debería haber desplegado una conducta tendente a lograr que las mismas llegaran al efectivo conocimiento del interesado, pues a ello viene obligada conforme a la síntesis doctrinal expuesta. (...). Sin embargo, no consta que aquella realizara ninguna verificación, a fin de asegurarse de que esa dirección correspondía realmente al demandante y, en consecuencia, en ella iba a poder recibir los avisos que ulteriormente le fueran remitidos”.

Administrazio-jakinarazpenen inguruan, jurisprudentziak berorien eraginkortasuna aztertzean kontuan izaten dituen alderdietako bat da interesdunak zein administrazioak erakutsi duten diligenza-maila.

Arartekoak aukera izan zuen sail horri gogorarazteko, Arartekoaren 2023ko ekainaren 27ko 2023R-966-22 Ebazpenaren bidez⁵, zein den jakinarazpenak egiterakoan administrazioari gutxienez ere exijitu dakioken diligenza-maila egiaztatzeke aukera ematen duen jurisprudentzia-doktrina.

Hori horrela, kasu honetan, jakinarazpen bat eskura jarri zelako abisu informatiboa bidaltzea eragotzi zuen akats teknikoa administrazioari egotzi behar zaio, eta, ondorioz, interesdunak ez zuen administrazioak emandako ebazpenaren berri izan.

Beraz, aipatutako jurisprudentzia ikusita, Arartekoaren iritziz, abisu informatiborik ez bidaltzeak benetako babesgabetasuna eragin zuen, administrazio onaren printzipioaren kontrakoa, administrazioak ez zuelako behar bezalako diligenziaz jardun jakinarazpenak egiteko beharrezko legezko betekizunak betetzeko.

5. Azkenik, administrazioak azaldutakoaren pareko akats teknikoak (jakinarazpena eskuragarri zegoelako abisua bidaltzea eragotzi zuena, adibidez) saihesten laguntzeko beste ekarpen bat ere egin nahi du Arartekoak. Euskadiko administrazio elektronikoaren dekretuaren [90. artikulua](#), RAFMEren [41.3 artikulua](#) garatu eta zerbitzu publikoen erabiltzaileen datu-base korporatibo bat sortzea aurreikusten duenak, zera ezartzen du: *“herritarrekin harremanetan jartzeko datuak jasoko dira han, eta zerbitzu publiko eta prozedura guztietarako erabiliko da”.*

Gainera, hauxe ere ezartzen du: *“Informazio-sistema guztiek erabili beharko dute datu-base korporatibo hori, herritar hartzaileen kolektiboa zein den alde batera utzita”.*

Interesdunek emandako harremanetarako datuekin sortutako datu-basearen xedea litzateke komunikazioak eta jakinarazpenak jasotzea honako kanal hauetan:

⁵ <https://www.ararteko.eus/eu/node/92351>



“a) Aurrez aurreko kanala: posta bidezko komunikazio eta jakinarazpenak egiteko ezinbestekoak diren datuak, baldin eta pertsona fisikoek kanal hori aukeratu badute eta ez badaude behartuta Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

b) Kanal elektronikoa: egoitza elektronikoan agertuz egingo diren komunikazio eta jakinarazpen elektronikoetarako ezinbestekoak diren datuak, gailu elektronikoa edo helbide elektronikoa barne”.

Arartekoaren iritziz, dekretuan jasotakoa bezalako datu-base bakar bat sortzea Eusko Jaurlaritzari lotutako erakundeek eta organoek kontsulta egin ahal izateko, aukera ona izan daiteke herritarrei abisu informatiboak egitea errazteko interesdunek nahi ez dituzten ondorio juridikoek izan ditzaketan akats teknikoak egon beharrik gabe.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailari:

GOMENDIOA

- Prozedura guztietan bermatzea jakinarazpenak egoitza elektronikoan eskuragarri daudela adierazteko abisu informatiboak bidaliko direla, zeinahi ere den interesdunak administrazioarekin harremanetan jartzeko aukeratu duen kanala.
- Ondoriorik gabe uztea administrazioak emandako ebazpena, jakinarazpen elektroniko bati zegokion abisu informatiboa ez bidaltzeagatik sortutako benetako babesgabetasuna dela eta.

